

# BERRIGARA

107. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, maiatzak 14

HAURREN  
EUSKAL JAIA  
OSPATUKO  
DA  
IGANDEAN

ZERGA  
AITORPENA  
EGITEKO  
EPEA  
EKAINAREN  
25era ARTE  
ZABALIK

KIROLAK

OILAGORRAK  
7000  
AMORRAIN  
KUMA  
ERREKARATU  
DITU




JAIETAKO  
TXEKORKETA  
aurkeztu da

THE



Burberrys  
OF LONDON

LOOK



CARTUJANO

Dr. MARTENS

egizabal

autentikoak eta

PANAMA JACK

# BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA  
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)



**SAN MARTIN DE AGIRRE**  
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2-14 urte.



**LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA**  
IEE (REM) BATXILERGO TEKNIKOAK, LANBIDE  
HEZIKETA MODULOAK. 14-19 urte.



**BATXILERGO INSTITUTUA**  
BBB (BUP) UBI (COU). 14-18 urte.



**ANGIOZARKO ESKOLA**  
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2-14 urte.

• **D, B eta A EREDUAK:** D DENA EUSKARAZ / B ELEBIDUNA / A GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK.

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUA:**

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK.

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUTA ETA HORNITUTA:**

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

**MATRIKULATZEKO EPEA:**

**SAN MARTIN IKASTETXEA:** MAIATZAREN 13tik 31ra arte (AURREMATRIKULA).

**BATXILLERGO INSTITUTUA eta LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA:** MAIATZAREN 13tik 31ra arte.

**2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA**

**MATRIKULA DOHAINIK**

BERRIGARA astekaria  
Tfnos. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde  
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:  
Jardun Elkartea, Masterreka, 13  
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.  
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkorobereziar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:  
Alex Azkarate eta Eurne Arenaza.  
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaen.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,  
Esteban Plazaola, M. A.  
Elkorobereziar, J. M. Elempuru, J.  
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.  
Aizelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra  
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiflu.  
Komikia eta marrazkiak: Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Ofati)  
Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:  
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

# JAUNARTZEAK

Joan den igandean aurtengo lehen jaunartzeak egin ziren Bergarako parrokitan. Horrela, Santa Marinan, 17 neska-mutikok egin zuten beren lehen jaunartzea eta datorren maiatzaren 23an beste 40k egingo dute. San Pedron eman dizkiguten datuen arabera, berriz, joan den igandean 54 izan ziren kristau konpromezua hartu zutenak eta hilaren 23an beste 52 neska-mutikoren ordua izango da.

Bietan ere, euskaraz eta erderaz egiten dira gaur egun jaunartzeak, katekesietan euskara nagusi bada ere (4 la-



gunetik 3,5k euskaraz egiten du). Bestalde, hazkunde azken urteotan jaunartzeen kopurua jeisten joan bada ere, iazko datuekin konparatuz aurten jaunartzeak gora egin dutela aipatu behar da. Iaz 155 izan ziren eta aurten berriz, 169.

**169 gaztetxok beren lehen jaunartzea egingo dute aurten**

## ITURRI ONETIK

### Lexikoa jasotzeko hitzarmena

Bergarako Udalak eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak Bergarako lexikoa jasotzeko hitzarmena sinatuko dute aurki. Hitzarmen honen helburu nagusia euskararen hainbat arlotako (ehungintza, arotzeria, igeltseritza, jozkintza etab. luze bat) hitzak jasotzea litzateke, erabat galdu ez daitezten. Hitzarmen honek izango duen jarraipen batzordean Miren Azkarate euskaltzaina eta Xarles Bidegain euskaltzain laguntzailea izango dira.

## ESAN DUTE

"Irakaskuntzatik bizidena idazle asko dagoela? Ba seguraski irakaskuntzak denbora libre asko uzten duelako da. Bazen idazle bat lanerako leku aproposena putetxe bat zela zioena. Egunez, nahiz gauez pake izugarria izaten zela esaten zuen. Haren iritzi putetxe bateko atezain izateak denbora libre asko uzten du"

### MIKEL HERNANDEZ ABAITUA


Idazlea eta irakaslea  
ELGOIBARREN aldizkaria

"Hamarkada sozialistaren porrota Eusko Alderdi Jeltzalearen porrota ere bada"

ENEKO OREGI  
Arabako Eako zerrendaburu  
Kongresurako  
EUSKAL TELEBISTA



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

## EZPELETA

etxea


Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

## ZUBIETA

elektragarritza

✓ Motorren bobinak eta  
✓ Era guztietako instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnos: 76 23 48

**SOMMERSBY**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30. eta  
22.30.Igandea: 17.00, 19.30 eta  
22.15.

Astelehena: 19.30

**EL AMANTE BILINGÜE**

Osteguna: 19.30



▼▼ Jodie Foster eta Richard Gere aktoreek *El regreso de Martin Gerre* filme frantzesaren bertsio amerikarra egin dute. Emazte-ari izugarri kostako zaio hainbat urte-tan gerratean izan den bere gizona errekonozitzea etxera itzultzen denean.

▼▼ Vicente Arandak, *Amantes* filmearen arrakastaren ondoren, Juan Marséren beste nobela bat pantailaratu du. Imanol Arias eta Ornella Muttirekin Bartzelonako egoera linguistikoaren ikuspegi bitxia ematen zaigu.

▼ Datorren ostiralean, hilak 21, DYAKo sortzaile izandako Usparitxak **hitzaldia** emango du **Kultur Etxean** arratsaldeko 8etan.

Gabon hauetan beteko dira 25 urte Pol-Poleko Sokorrismo taldeak Borondate oneko kanpainari ekin zionetik eta hori deta eta antolatu da hitzaldi hau. Argazkian, Errasti eta Usparitxa 1978an.

**Zinea****Musika**

▼ **Primavera de Chernob** eta **La Hiel** taldeen kontzertu izango da larunbatean, gaueko 10etan, Bergarako Gaztetxean. Sarrerak 300 pta. balioko du.

**Jaiak**

▼ **Asentsio jaiak** hasiko dira Zubiaurre-Martokon datorren maiatzaren 20an. 18.30etatik aurrera txupinazoa, txokolate jantzi buruhaundiak eta soinu-joleak.

**Farmaziak**▼ **Larunbata 15:**

Puy.

▼ **Igandea 16:**

Puy/Corcuera (Arrasaten gauez)

▼ **Astelehena 17:**

Guallar/Irizar.

▼ **Asteartea 18:**

Estella/Amezua.

▼ **Asteazkena 19:**

Mozos/Ruiz.

▼ **Osteguna 20:**

Camacho/Morales.

▼ **Ostirala 21:**

Puy/Español.

**Ogia**▼ **Igandea 16:** Mizpildi.

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

**BERGARA**

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

## Deiak

▼ **Mendi irteera:** Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek Belate-Arrarasera (Nafarroa) helduentzako mendi irteera iragarri dute igandeko, hilak 16. Izen-ematea Pol-Polen egin daiteke.

▼ **Ikastaroa:** Lanbide Heziketa Eskolan *Autoedizioa ordenadorez* eta *Automata programableak* ikastaroak emango dira astelehentik aurrera. Informazio gehiago 762491 tel. zenbakian.

▼ **Ibilaldia 93:** Maiatzaren 23an Ondarrun ospatuko den Ibilaldira joateko autobusak antolatuta dira. Izen-ematea Euskara Zerbitzuan eta Aranzadi Ikastolan egin daiteke hilaren 20a baino lehen.

## Kirolak

### ▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Aloña* (jubenil neskak). **Larunbatean** 16.00etan.
- *Bergara-Bidebieta* (jubenil mutilak). **Larunbatean** 17.15etan.
- *Bergara-Jauja* (kadete neskak). **Larunbatean** 18.30etan.

### ▼ Futbola:

- *Bergara-Sporting Herrera* (lehen infantila). **Larunbatean** Ipintzan 11.30etan.
- *Bergara-Amaikak-Bat* (lehen jubenila). **Larunbatean** 15.30etan.

## Aukeran

▼▼ **Mendiko bizikletari** buruzko bideo emanaldia eta mahai-ingurua iragarri du JARDUN Elkarteak astelehenerako, maiatzak 17. UNEDeko aretoan, arratsaldeko 7 t'erdietatik aurrera, Ismael Lejarreta, Iñigo Igartua, Joseba Arietaleanizbeaskoa eta Jesus Kortabarria "Kaxeta" hizlari eta Andoni Basabe kazetaria moderatzaile lanetan arituko dira.



- *Bergara-Hondarribi* (preferente maila). **Larunbatean** 5etan Agorrosinen.

- *Bergara-Aretxabaleta* (2. infantila). **Igandean** 4retan Ipintzan.

### ▼ Pelota:

- Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igandean** 11.30etan Elosun.
- *Bergara-Aretxabaleta*. Deba Arroko semifinala. **Asteazkenean** 20.30etan Forntoian.

### ▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Kiroldegian.

5

## PROFESIONALAK

- Tolosa III.a-Aldazabal II.a/Coca-Zezeaga (ETB).
- Ansotegi-Andueza VI.a/Arteaga-Oregi.
- Intxaurren-Buenetxea/Loiarte-Erasti II.a.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

## TOKI-ONA

### Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txiteizotzak  
Kazalatroak / Txabiernoak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53



## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

**Ongi etorri Joseba**

Ez nuen uste beste iritzi batzuk di-tuztenganako, hauek duten ikusiezina hainbesterainokoa zenik. Gure alkate Victoriano eta bere kideei buruz ari naiz, hain zuzen ere.

Herritar arrunt garenok sarritan ho-rrelakoen berri izaten ez badugu ere, gaur idaztera bultzatzen nauen gerta-kizunak hainbat jarrera ulertzen lagun-tzen du, eta areago oraindik ondorio tamalgarrien eragile gerta daiteke.

Udal gobernua azken aldi honetan herri "garbi" baten aldeko apostua egin duela saltzen saiatu bada ere, honelako gertakizunek argi eta garbi adierazten dute hori ez dutela helburu eta hainbat aldiz salatu izan dugun adierazpen as-katasunaren aurkako eraso bezala ba-iezatzaten dute.

Balorapenak balorapen, iritziak iri-tzi, jo dezagun arira eta azaldu gertaki-zuna bera.

Denok dakigu da, kartzelan urte ba-tzuk igaro ondoren etxeratu berri dugu-la Joseba. Ez dut uste inori burugabe-keria irudituko zaionik bere lankideek ongi etorria adieraztea. Baina ulergaitza gertatzen bazait ere, gure alkate jaunak eta bere kideek langileak ohar taulan ezarri zuten kartela kentzeko agindua eman zuten. Esan, Joseba udal langilea dela eta kartelak "Ongi etorri, Joseba"

soilik zioela.

Adierazpen Askatasunaren aurkako eraso izateaz gain elkartasun adieraz-pen baten oztopatzaile dira era honetako aginduak, beraz, gure herriaren ezau-garriotako baten aurkakoa eta beste gizarte eredu insolidario baten eragile.

Batzuetan alderdien arteko hika-miken itxura azaltzen badute ere, errealtate gordintzat onartu beharko dugu PNVk gi-zarte soziala zeharo kontrolatua eduki nahi duela dioten adierazpenak.

Azkenik norbaitek zioen hura gogora ekarri: "tolerantzia ez da zentzu bakarre-ko autopista".

Besterik gabe, ongi etorri, Joseba!

**Aitor Aginagalde**

**Atzerakada**

"Haundikeria" nagusi bihurtu den legislatura honetan, "Ohitura Zaharra" berreskuratu beharrean aurkitzen da gure Udala.

Hala eta guztiz ere herritik sortu den batzorde baten erantzunak harritu egin ditu: Ez zuten espero zezenekiko erres-petua aldarrikatzen duen jendea Bergaran egongo zenik.

Zezen korriden (zezenketen) aldeko-ak, aldiz, ondo baino hobeto ezagutzen dituztenez, beraiei apoio guztia eman di-

ete. Udalak antolatzaile lanak egin di-tuela kontutan hartu behar da. Beraz, lagundu ezezik antolatu ere egin ditu.

Guzti honek pena eta era berean amorrubiziaz sortzen dit. Ez nuen espero inondik inora gure Udalak horrelako antikultura ekitaldia antolatzea, are gutxiago, ohitura argudioa erabiliz. Edo akaso komeni da gizarte honek mendeetan zehar izan dituen zenbait ohitura tamalgarri izendatzea?

Jadanik jakin badakigu aurten ze-zenketak egingo direla, ezinezkoa omen da atzera egitea, baina zinegotzi agur-garriok kontutan eduki ezazue zuen erruz gure herriak kultur arloan atzeraka egin duela.

Ez dezagun atzerapausorik eman!

**Izaskun Elizalde**

**Tiira ba!**



## EAren egoitza berria zapatuan inaguratuko da

Bergarako Eusko Alkartasunak dei egiten die bere jarraitzaileei larunbatean, hilak 15, bere egoitza berria inaguratzeko egingo diren ospakizunetan parte hartzeko. Goizeko 11etan meza izango da Monja Zaharretan, ordu erdi beranduago Barrenkale 18.eko egoitza berria bedeinkatu eta ofizialki irekiko da eta, amaitzeko, 12 t'erdietan politika ekintza bututuko da Novedades aretoan. Bertan, Murua, Albistur, Baztarrika eta Aulestiak hartuko dute parte.

# Haurren Euskal Jaia Bergaran ospatuko da igande honetan

Aranzadi Ikastolak, Bergarako Udala eta Diputazioaren laguntzaz antolatuta, igandean, hilak 16, XX. Haurren Euskal Jaia ospatuko da Bergaran. Goizeko 10.15etan Bergarako Seminarioan parte hartuko duten talde guztiak (12 talde, Aranzadi Ikastolako dantzataldea tartean) bilduko dira eta, ondoren, 10 t'erdietan meza izango da Santa Marinaran.

### 500 haur inguru

Ordubete beranduago berriz ere Seminarioko futbol zelaian bilduko dira, parte hartzaileei (500 bat haur dantzari) bokadiloak banatuko zaizkienlarik. Eguerdiko 12etan bertsolariak egongo dira Seminarioan eta alkate txikiari ongi-etorria egingo zaio. Dantzataldeek kaleetan zehar beren



Aranzadi Ikastolako dantzataldeek Euskal Jaian parte hartuko du.

dantzak eskeiniko dituzte 12.15etatik aurrera eta 13.30etan talde bakoitzak bere dantza berezia eskeiniko du. Ordubietan bazkaria eta bazkalostean, arratsaldeko 4 t'erdietan, guztiak Seminarioa joango dira kalejiran. Bostetan dantzen alardea burutuko da txistulari guztien partaide-tzarekin, 6etan dantza

joku koktela egingo da talde guztietako haur eta arduradunekin eta 7etan jaialdiari bukaera eman-goa zaio.

Dantzarietz aparte, Bergarako Musika Eskolako txaranga eta trikitalariak, Moises Aspiazu taldeko dantzariak eta Arrasateko dultzaineroek ere kaleak alaituko dituzte egunean zehar.

## Jaiak Toki-Ederren

Toki-Ederreko jaiak ospatuko dira astebukaeran.

Ostiralean, 21.30etan, Su haundia egingo da eta 11etan Izadi taldearekin dantzaldia. Larunbatean, futbito partidua 10etan, haurrentzako ginkana 11etan, txikiteo herrikoia ordubatetan, mus txapelketa 4retan, haurrentzako kukañak eta merienda 5etan, buruhandiak 7etan, tanborrada 8etan, suzko erroberak 22.30etan eta Joselu Anaiakekin dantzaldia 11etan. Igandean, Aritzeta ren emanaldia 11etan, jubilatuentzako luntxa 12etan Aizepe elkartean eta, bertsolari eta trikitalariek alaitutako herri bazkaria 14.30etan.



Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

**Jubilatuen irteerak: mendia eta balnearioak**

Inersoak balnearioetan egonaldiak antolatu ditu 60 urtetik gorako pentsionistentzat. Irailetik aurrerako txandetarako eskakizunak Jubilatueta (762140) jasoko dira maiatzaren 31ra arte. Bestalde, jubilatuek mendi irteera antolatu dute datorren asteazkenerako, hilak 19. Irteera goizeko 8etan egingo da Beheko Estaziotik lineako autobusean Elgetaraino eta Intxortara igo ondoren, Asentzio, Koroba eta Arrikotxotik jeitsiko dira. Izena emateko epea maiatzaren 18an ixten da.

**Herri Batasunak informazioa eman**

Bergarako Herri Batasunak ekainaren 6ko Hauteskunde Orokorretan botoa korreoz eman nahi dutenei nahi beste argibide emango die Arrano zaharrea (Irala kalean), goizez 11etatik ordubatera eta arratsalde 5etatik 8etara. 762574 telefono zenbakira deituaz ere jaso daiteke informazioa.



Kuadrilen brusek jaiak alaitzen dituzte euren kolore deigarriekin.

**Brusa lehiaketa Pazkuetan**

*JARDUNek antolatuta, kuadrila guztiak parte har dezakete*

JARDUN Elkarteko Gazte Taldeak Bergarako Jaietako II. Brusa Lehiaketa antolatu du. Parte hartzen duten kuadrilek jaietako brusa bat, kuadrilaren argazki bat (21,5 x 15 cm. takoa) eta esaldi bat euskaraz (jaien inguruan eta gehienez 3 lerrotakoa) aurkeztu beharko dute JARDUN Elkartean (Masterreka 13) maiatzaren 28a baino lehen. Argazkia ateratzerik ez dutenei maiatzaren 28 eta 29an 6etatik 8etara Plazan aterako zaie argazkia.

Sariei dagokienez, lehenengo taldean (14 urtera artekoak) lehen

saria 15.000 pta.koa izango da, bigarrena 12.000 pta.koa eta hirugarrenak 10.000 jasoko du. Bigarren taldean, berriz, lehenak 25.000 pta. eta Herri-bazkarirako 10 txartel eskuratu dituztenak, 20.000 bigarrenak eta hirugarrenak 15.000. Sariak ematerakoan, brusaren diseinua, esaldiaren bizitasuna eta hizkuntza zuzentasuna eta argazkiaren orijinaltasuna hartuko dira kontutan. Partaide guztiak 3.000 pta.ko dietan jasoko dute eta jaietan, kuadrilaren egunean, sari banaketa eta erakusketa egingo dira Simon Arrietan.

**IZARRHOTZ**

IZOKIAK

IZOKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

**INFERNUKUA TABERNA**


Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

**MUJIKA**

**Burdinaki denda**

Bidekurutzeta 8      76 28 67      BERGARA





Zerga aitortpena egiteko hasierako jende ilada luzeak atzean geratu dira.

## Zerga aitortpena martxan

*Lehenbizi txanda eskatu behar da Mintegiko bulegoan*

Zerga aitortpena egiteko epea zabalik izango da ekainaren 25era arte Bergarako Bulego Tributarioan (Mintegi, 5). Lehenbizi txanda eskatu (telefonoz ezin da) eta handik 3/4 egunetara zerga aitortpena egiteko aukera dago. Pertsona bakoitzak, gehienera, 2 deklarazio aurkeztu ahal izango ditu (berea alde batetik eta bere gurasoena bestetik ad.). Bergarako bulegoa astelehenetik larunbatera arte 8.15etatik ordubietara zabalik dago eta Pazkuetan zabalik izango da.

Bertako arduradunek jendeak

aitortpena ahalik eta gehien beteta eramatea eskatzen dute, prozesua azkartzeko. *"Duda bat izatekotan abolkularitza eskatu. Horretarako telefono zenbaki bat (421949) dago. Askotan jendeak ez du etxebizitzaren eskriturak ekartzen eta buelta egin behar dute ezer egin gabe".* Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati, Elgeta eta Bergarako bizilagunek egin beharko du deklarazioa Bergaran. Aurreko urteotan, batz bestea, 19.000 deklarazio inguru aurkeztu izan dira urteko.

## Gaztetxeko sententzia kalean

Bergarako epaileak ostegunean jakitera emandako sententziaren arabera, gazteek Gaztetxeko lokala utzi beharko dute. Gaztetxeak datozen hiru egunetan sententzia errekurritu ala ez erabaki beharko du.

## Aranzadi Ikastolako bilera

Bergarako Aranzadi Ikastolak dei egiten die ikasleen gurasoei asteazkenean, hilak 19, Novedades aretoan egingo den Ezohizko Batzarrean parte hartzeko. Lehen konbokatoria 7etan izango da eta orduerdi beranduago bigarrena eta azkena. Aztertu beharreko puntu bakarra ikastetxea publiko edo pribatu izatea izango da eta familia bakoitzak boto bat eman ahal izango du.

## AEKren txozna jende bila

AEKk jendea behar du Pazkuetan jarriko duen txoznan lan egiteko. Interesatuek Arrano, Pol-Pol edota Korta-Zaren eman dezakete izena.

**F A N C Y**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

## FERNANDEZ



**Oihal puskak  
Oihalak**

San Antonio 3  
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2  
Tfnoa: 76 53 22

**SANTOS IRRATI-TB**  
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

**Zuek** Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta, 3



Argazkian, Zezen Zaleak taldea joan zen larunbatean egindako aurkezpenaren ondoren.

# Jaietako Txekorketa aurkeztu du Zezen Zaleakek

*Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordeak firma bilketa egin du*

**Pasa den larunbatean aurkeztu zuten Zezen Zaleak taldekoek aurtengo jaietan izango den txekorketa. Bestalde Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordeak eta Udalak bilera izan zuten ostiralean eta larunbatean, batzordekoak txekorketaren aurkako firmak bildu zituzten kalean.**

**Z**ezen Zaleak taldeak aurkeztu zituen berak antolatutako txekorketaren inguruko xehetasunak.

Taldea inguruko zezenketetara joaten diren bergarrez osatua dago, eta orain arte elkarte ezberdinetan bildu izan dira zezenen inguruan hitz egiteko. Normalean taldea Zestoa, Azpeitia eta Bilbora joan izan da Zezenketak ikustera, baina beren betiko asmoa gure herrian txekorketa bat antolatzeko izan da eta Juan Luis Bikuñak, taldeko bozeramaileak adierazi zuenez "aurten Uda-

letxeko obrak direla eta, jakin ahal izan genuen Udalak zezen plaza portatila jartzeko asmoa zeukala eta guk, egoera aprobetxatuz, Udalari baimena eskatu genion txekorketa antolatzeko eta bonek onartu egin zuen gure proposamena. Baina zela ez daukagun inongo entitate juridikorik, Udala agertzen da, legalki, enpresa antolatzailerik moduan".

Horrez gain etorriko diren toteroak ere zehaztuta daude, Edu Gracia iruñarra eta Javier Chacon gasteiztarra izango dira, eta Bikuñak adierazi zue-

nez "biak dira txekorketa pikadorearekin toteratzen dituztenak eta esperientzia nabiko bantatzen dituztenak eta ondorioz, moldatuko direla zezen plazan".

Txekorrek bi urte dituzte, 350 kilo ingurukoak dira eta Cesar Moreno, nafarraren ganadutegikoak dira. Guztira 50 txekor etorriko dira, lau zezenketan aritzeko eta beste erreserban izango da.

**Plaza portatila Orozkotik**

Plaza Orozkoko Be

nigno Manzargoitiari alokatu dio Udalak eta plazaz gain entzierroa, enbolatuak eta kuadrilentzako jokoak ere Manzargoitiak antolatuko ditu. Plaza hiru egunetan montatuko da eta enpresa arduratuko da muntaketaz. Neurrei dagokienez, barrutik 32 metrotako diametroa izango du eta kanpotik 42 metro. 2.000 pertsonarentzako tokia izango du.

### Hiru entzierro

Entzierroak igandean, astelehenean eta asteartean, goizeko 9etatik aurrera izango dira eta Gasparrenetik irtengo dira, Orozkotik ekarritako 3 mantso eta 4 edo 6 txekor. Txekorrek, badaezpada adarrak estalita eramango dituzte, eta entzierroak zeharkatuko dituen kaleak hesiz inguratuta egongo dira. Entzierroko txekorrek ez dira brometakoak, zeren 300 kilo inguru baitituzte eta entzierroa hasi baino lehen ertzainak pasako dira bide guztian, despistaturen bat galduta baldin badabil entzierroa datorrela abisatuz.

Entzierroa bukatu eta gero, zezen plazan enbolatuak izango dira eta korrika sartzen ez denak plazara sartu nahi badu 100 pzta ordaindu beharko ditu. Astearte arratsaldean zezen plazan kuadrilentzako jokoak ere izango dira.

Guzti hori, plaza jartzea, entzierroa eta enbolatuak Udalak antolatu du eta 800 mila pzta. kostatuko zaio.

### Dagoeneko sarrerak salgai

Sarrerak hiru motakoak izango dira, bai toki aldetik eta baita prezio

aldetik ere. Zezen plazako barreran egoteak 2.000 pzta. balio ditu, eta tendidoak 1.500 pzta. tan lor daitezke. Azkenik, hamar lagun baino gehiagoko gazte kuadrilek prezio berezia izango dute: pertsonako 800 pzta ordaindu beharko dute eta sarrerak Kultur Etxean eskuratu ahal izango dituzte. Beste guztiak sarrerak erosteko Urrats, Etxalar, Usoa, Zumelaga, Canalejas eta Maxims tabernetara jo beharko dute eta noski, jaietan zezen plazan bertan izango dira salgai.

### Pasodobleak, jaia girotzeko

Musikak ere izango du bere garrantzia zezen jaietan eta honela, Musika Eskolako bandak hainbat pasadoble joko ditu. Horien artean "El Carloteño" ren omenez egindako pasadoblea ere joko dute. "El Carloteño", Cordobako La Carlotakoa jaiotzaz, Bergaran bizi izan zen San Antonio auzoan, hain zuzen, eta bazuen bere

## TXINPARTAK

**Zezen plaza  
2000  
ikuslerentzat  
izango da eta  
Udalari 800  
mila pzta.  
kostatu zaio.**

**Entzierroko  
txekorrek 300  
kilo ingurukoak  
dira eta  
mantsoak  
kontatuz 7  
izango dira.**

**Bergaran  
azkenengo  
txekorketa  
1965ean izan  
zen eta azken  
toreroa «El  
Carloteño».**

peña ere "La Parra" tabernan.

Pasadoblea 1964ean estreinatu zen Bergarako San Martin plazan eta Miguel Gonzalez Bastidak konposatu zuen. Horretaz aparte, Musika Eskolako bandak euskal musikagileek eginiko pasadoble batzuk ere joko ditu.

### "Ekologisten erreakzioa normala"

Zezen Zaleei galdetu genien, halaber, txekorketaren aurka sortu diren taldeei buruzko iritzia eta Bikuñak zera esan zuen "guk ulertzen dugu beren jarrera eta normaltzat jo dezakegu. Aurkako taldeak hor daude eta guk uste dugu jai hau, zezenzaleentzat antolau dugula eta polemika hau betidanik izanda. Orduan, guk txekorketarekin zezenzale multzo handi horri Bergarako jaietan beste aukera bat eskeini nahi izan diogu, eta zezenak asko gustatzen ez zaizki-



Garai batean herrian izaten ziren zezenketara joateko emakumeak dotore asko jartzen ziren. Argazkian ikus ditzakegu emakumetako batzu zezenketara autoan joaten.

enei ere esan nabi diegu igande arratsalde on bat pasa dezaketela.

Azkenik adierazi nabi dugu, ekologisten eritzia errespetagarria dela, baina gu, noski, ez gaude beraiekin ados eta ez dugu polemikatan sartu nabi".

### **30eko txekorketa**

Txekorketak milioi eta erdiko aurrekontua du eta gastu guzti hori Zezen Zaleak taldeak hartuko ditu bere gain. Txekorketa jokatu ezin izango balitz, antolatzaileek milioi eta erdiko aseguru kontratatu dute.

Jendea etorriko dela ia segurutzat jotzen dute eta jadanik, Edu Gracia nafarraren peñakoak autobus bat behintzat antolatu dute.

### **Alkatea presidente?**

Txekorketaren komitiba, plazatik irtengo da eta oraindik ez dago zehaztuta nor izango den txekorketako presidentea, nahiz eta legez alkateari dagokion kargu hori, baina beste kontzejalen bati utz diezaioke postua. Bestela inork ez badu lehendakaritza hartzen, erztaintzak erabakiko du nor izango den presidentea.

Plazan 6 ganaduzain arituko dira eta lan horiek betetzeaz Zezen Zaleakeko kideak arduratuko dira, Orozkoko ganaduzalearekin batera. Txekorketa garaian kirofanoa eta guztiko anbulantzia izango da eta txekorrak hil ondoren, beren okela Javier Lazpiur harakinak erosi du.

Entzierroak goizeko bederatzietan Felix Gutierrezek jaurtiko duen txaflero batekin hasiko

## **TXINPARTAK**

**Astearte arratsaldean zezen plazan ponyak, basurde txikiak ea.ak egongo dira kuadrilentzat.**


**Txekorketak miloi t'erdiko aurrekontua du eta Zezen Zaleaken kontura izango da.**

**Luis Gutierrez eta Felix Beitiak emango diete hasiera eta bukaera txafleroak jaurtiz entzierroei.**

**Zezenketako txekorrak Cesar Morenoren ganadutegikoak dira: guztira 5 txekor.**

dira, eta amaiera Felix Beitiak jaurtiko duen txafleruarekin emango zaio. Gainera oraindik erabaki

barik dago, entzierroko txekorrak kamioitik irtengo diren edo txabolatxoren bat egingo den lurre-



Txekorketaren aurkako 700 bat firma bildu zituzten joan den astebukaeran batzordekoek.

tik irten ahal izateko.

### **Txekorketaren aurka: firmak**

Pasa den ostiralean Udaleko ordezkariak eta Zezenenganako Errespetuaren aldeko Batzordeko kideek bilera izan zuten. Bileran alde bakoitzak bere jarrerak argitu zituen. Udalak argutzi zuen beraiek ez dutela txekorketa antolatzen, laguntasuna emaridutela bakarrik adieraz zuten.

Bestalde ekologistek laguntza hori ez dute ongi ikusten eta beren ustez txekorketa ez litzateke jaietako programaren barruan egon behar, beraiek ustez "txekorketari Udalak ez lioke inongo laguntzarik eman beharke zeren Udala bergaraguztiona baita eta guztiak kontuan eduki behar ditu, herritarren sentsibilitate guztiak".

Horrez gain, batzordeak asteburuan txekorketaren aurkako firmak batu ditu eta ekintza horiekin jarraituko du.

Elkartuta JARDUN  
beharra daukagulako...

# Talde lana: LANTALDEAK

**J**

ARDUN Elkartearen asmo nagusienetakoa euskara eguneroko bizitzan esparru guztietara zabaltzearena izan da hasieratik. Asmo horiek gauzatzeko ahaleginetan, lau talde eratu dira hiru urte hauetan: **Komunikabide Taldea, Kultur Taldea, Gazte Taldea eta Barne Gestioa. Orain, berriz, Kanpo Harremanak eta Emakume Taldea sortu nahi dira.**

**Hurrengo orrialdeetan lau lehenengoen orain arte egindakoa eta etorkizunerako dituzten asmoak aipatuko ditugu.**

Aurpegi ezagunak JARDUNeko Kultur Taldeak antolatutako mahai-inguru batean: Otegi, Realeko gerentea; Asier Aranguren, ETBko aurkeztailea; Iribar, Bengoetxea...



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!


# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



**KOMUNIKABIDE TALDEA**

"BERRIGARA astekaria kaleratzera bideratu ditugu esfortzu gehieneak. Horrez gain, Urtekaria eta Gida ere kaleratu genituen joan zen Gabonetan. Bergarako atletsimoaren historia kontatuko duen liburutxo argitaratzeko asmotan gabiltza eta, horrez gain, udatik aurrera astekaria itxuraz aldatzea eta sail berriak sartzea ere aztertzen ari gara une hauetan".

**Iñaki ERAÑA**



"Momentu honetan 11 lagun ari gara taldean. Iaz antolatu genituen ibarduaren artean hauek azpimarratuko nituzke: Bergarako Bertso Eskolarekin batera antolatutako bertso ikastaroa, iazko jaietako Brusa Lebiaketa, aurten ere antolatuko duguna, eta denbora libreko ikastaroa. Bestalde, iaz moduan, aurten ere, haurrentzako bideo emanaldiak izaten dira hamabostean behin eta aurrerantzean ere antolatuko dira".

**Maria COSIO**

**GAZTE TALDEA**





"JARDUNek iazko azaroan egin zuen Mintegian sortutako taldearen eginkizuna Masterreka 13ko egoitzaren jestioaz arduratzea eta elkartearen diruzaintza eramatea dira batez ere. Horiez gain, egun hauetan burutzen ari garen bazkide kanpainaz, beste herrietako elkarteekiko barremanez eta baita JARDUNeko bazkideekiko barremanez ere geu arduratzen gara. Taldea sei lagunek osatzen dugu".

**Miriam PEREZ**



## BARNE GESTIOA

## KULTUR TALDEA



"Taldea 1991n sortu bazen ere, 1992an indartu eta egitasmo berrieekin ekin genion eta bitzaldiak, bertso afari eta jaialdiak, komiki lehiaketa eta literatur tailerra antolatu genituen.

Aurten, ordea, Mikel Markezen eskutik euskal kanten ikastaroa, dantza ikastaroa eta Pol -Pol Argazki Taldeak emandako argazki ikastaroa antolatu ditugu. Ezin dezakegu abaztu, bestalde, arrakasta haundia izan zuen

"Amodiozko Gutunen I. Berrigara Lehiaketa". Taldea bost lagunek osatzen dugu eta hemendik aurrera orain arteko bide beretik jarraituko dugu, egunetik-egunera gauza berriak eskainiz".

**Jose Angel ARRIARAN**



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!

Elkartuta JARDUN  
beharra daukagulako...



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!



IZENA.....  
ABIZENAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....  
ADINA.....  
TELEFONOA.....

BAZKIDE KUOTA: **4.000** pzta. URTEAN. (IKASLEEK **500** pzta.)

MOZTU ETA BIDALI JARDUN  
ELKARTERA (MASTERREKA 13.  
76 08 19)



# JAOLATZA

## Uberako elkartea

Jaolatza elkartea kokaturik dagoen lokala aspaldi batean eskola izan zen. Ubera auzokoek ez zuten elkartzeko beste tokirik, eta eskolan ezer ez zegoenez, bertan batzen ziren. Horrela sortu zitzaien elkartea egiteko ideia, eta 1975.eko irailaren 24an inauguratu zen elkartea. Beranduago handitzea pentsatu zuten. Honela, behean beste gela bat zabaldu zuten. Orain hemen sukalde eta jangela dute ipinita.

Elkartea sortu zenean 26 bazkide ziren. Gaur egun 55 bazkide izatera iritsi dira. Jaolatza elkar-terko bazkide guztiak Uberako seme-alabak dira, San Juango gutxi batzuk ezik. 55 bazkide haue-  
tatik 8 emakumeak dira. Esan beharrekoa da bazkide guztien senar-emazteek ere elkar-terko giltza dutela, eta sarrera librea. Bazkide hauen batazbesteko adina 38 urtekoa da.

Rafael Olañeta, Joseba Olañeta eta Luis Maria Gutierrezek aipatu digutenez, Jaolatza elkarteak urtean 1.500.000 pztako kaja batzen du. Badirudi azkenaldian batutako kopuru hau pixka bat jeisten ari dela. Falta kontutan %4 inguruan ibiltzen dira.

Jaolatza elkarteak urtero jubilatue-  
dako bazkaria gertatzen du. Hontaz gain, auzoko jaietan ere jartzen du bere parte-  
tea bakailo janarekin, saldarekin...

Momentu hauetan argiaren kuadro elektrikoa aldatu eta izotza egiteko



Jaolatza elkar-terko bazkideak.

aparailua ekarri nahi dute.

Orain presidentea aldatzekotan dabilta, baina bitartean Izaskun Ugarte dabil lan hori betetzen, orainarte bera izan bait da kargu hori bete duena.

Batzar orokorraren egunean afari batekin ospatzen dute bazkideek, baina hontaz gain, beste egun berezi bat dute. Urtero, azaroan porrupata-  
tak odolostearekin eta gaztaina jana egiteko elkar-terzen dira Jaolatza elkar-terko bazkideak.

Sukaldari artista beza-  
la Jose Manuel Markiegi "Poto" aipatu digute. Denetarik gertatzen omen du gainera. Bera omen da elkar-terko koordinatzaile nagusia.

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1975eko irailaren 24an.

**BAZKIDEAK:** 49.

**HELBIDEA:** Ubera auzoa.

**PRESIDENTEA:** Izaskun Arbulu.

**ELKARTEAREN EGUNA:**

Batzar Orokorra eguna.

**URTEKO KUOTA:** 10.800 pzta.

*Ainboa Lete*

# HAGIN KLINIKA

– Era guztietako konponketak egiten ditugu –

\* \* \*

**PABLO MARMOL MASTRANGELO** doktorea

**MARISA PORTA PEÑA** doktorea

**GABRIELA PORTA PEÑA** doktorea

Simon Arrieta Plaza, 3-2.

Tfnoa: 76 38 54

**BERGARA**

Iturriotz 7 bis, behea

Tfnoa: 79 73 88

**ARRASATE**

**FS**  
oto sistema

APPÉNTZ

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA**

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**Zuk zeuk egiten al duzu zerga  
aitorpena?**



**Maria Matilla**  
58 urte, etxekoandrea

Nere gizonak egiten du, bera arduratu izan da orainarte. Nik ez dut sekula egin.



**Juan Jose Gonzalez**  
40 urte, langilea

Asesoriaren batetara jotzen dut nerea eta neure emaztearena egiteko.



**Juan Carlos Barrena**  
48 urte, langilea


Asesoria batek egiten dit, ez nago ohituta eta. Horrela egitea lasaia goa da neretzat.



**Idoia Conget**  
31 urte, etxekoandrea

Hantxe bertan egiten dugu. Nahiko konplikatu da baina ez duguna asmatzen erak konpontzen digute.

**MARKIEGI Automobilak**



Leizeaga, 1  
(San Lorentzo Pol. Ind.)  
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

**ADI ORAIN:**  
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan  
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



## Eleziñuen zurrunbiloak

Betiko lelo aspergarria jasan behar udaberri aldakor honetan, komunikabideetara jotzen duenak: iragarki politikoak (aspaldiko eskaintza-agindu-promesa betegabe-koak oraindik ere betekizun), iragarki komertzialen artean emanak, merkatu "libreak" hobesten duen eredu informatiboan. Iragarpenak, prekanpainak eta postkanpainak atxakia, ezin dira egon jendaurrera atera gabe.

Eleziñuen inguruko zurrunbiloan OMOk gero eta hobeto ta txuriago garbitzen duela, berriz ere ta ohi bezala entzuten hasiak gara. Publizitate marka-labelak ordea askotxo dira. Azkar saldu beharreko tenore honetan gainera, beren salgaien arteko itxurazko desberdintasunak nabarmentzen dituzte "agentziek": AMAk arropak, primeran! Edo, OMA jaboak, txukun naramana!. Kontua da gehienek salgai bera edo beretsua eskaintzen digutela, hala dala izkututzen buru belarri saiatauta be.

Horrela, gure bizimodu arrunt hau jazten duen arropak antxiñako lizunak hartuta segitzen du TBVetako anuntziñuetako autoak, bertan besterik ez dira agertzen. Gure eguneroko auto, halabeharrez denboran barrena dabilzanez mailatu zaharrak ageri dituzte. Eta mendeetako herdoituak janda daude, karrozeria zulatzerainokoa. Motoreak aztertu behar igual!! Erregai nahikoaz noski!

**Iñaki Mozos**



## Ez da giro, San Isidro!


Epa Isidro, zer moduz? Zapatu hontan zeure eguna be badogu ta, zorionak! Dana dala, baserritarrok ospatuko dogula zure eguna, baina ez poz haundirik euki leikelako eh? Aurten be, batz beste edozein langilek baino % 60 gutxiago irabazi ei dogu, prezioak iazkoen aldean % 17,7 merkeagoak izan ei dira, eta hilada luzearekin segi leike,... martxa honetan laister zeure eguna zelebratzeko be ez da baserritarrik geldituko.

Gainera, honezkero ailegauko jatzun hemengo anabasiaren berri, eleziñuak direla ta politiko guztiak aztorauta, alkarri "txakurranak" esaten...

Horregatik pentsau dogu partidu guztiei gutxieneko eskaera batzuk egitea gure baserrietako lanpostuei eta diru-sarrerei eusteko, disparate bat diran Europako Nekazal Politika aldatu eta mundu mailako GATT-eko akordua atzera botatzeko.

Baserri txiki eta erdi mailakoak laguntzeko diru publikoak hobeto jestionatu, fiskal politika eta nekazal aseguro egokixago bat, industriarekin hartu-emonak arautu eta prezio hobegotara iristeko lege egokixak eta euskaldunok izan deigula ahalmen gutxiago Europan zuzenago parte hartzeko eskatuko dogu. Eta ea noizbaiten baserri munduan be eleziñuak egiten diran, "Jauntxokraziaren" ordez benetako demokrazia izateko. Bueno, ondo pasau eguna eta lagundu agintarixei begixak pixkat zabaltzen. Aber hurrengo urtean kontu hobiak dauzkagun!

**Maite Aristegi**



**Merzeria - Lenzeria**

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



**LASA  
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29


**MUGICA**

Goxotegia



**pastelak,  
errellenoak,  
tostoiak,  
tartak...**

Artekale, 3  
☎ 76 10 34



**Gaspar**  
**Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a**

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARREGUI, E.M.



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



**TOSHARE**

**ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29. Behea

Tfnoa: 76 29 70

BERGARA

**Mari Carmen**  
**ARRAINDEGIA**

**Arrain freskoak,  
izoztuak eta mariskoak**

Kruz Gallastegi

☎ 76 15 90 / 76 40 73



**LIZAR**

**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**KONDE**  
**PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



### ☐ **Jon Lazkano Sobieten herrialdean**

Jon Lazkano eskaladore bergarra Asia Zentraleko Tadzhiistan aldera abiatu zen igandean **Guillermo Bañales** eta **Javi Mugarra** lagunekin batera. **Uzbekistan** eta **Kirgizistan** errepublikekin eta Afganistan eta Txinarekin muga egiten duen CEIko errepublika horretan lehengo **Sobiet Batasuneko** mendirik altuenak aurkitzen dira eta beren asmoa, hemendik uztailaren erdialdera arte, **Pamiren** paretara egitea da. Ea han ere Jonek bere curriculum osatzen jarraitzen duen...



### ☐ **Panpinen erreinuan**

Bergarako ikastetxe ezberdinetako haurrak **Taun-Taun** txontxongilo taldearen panpinen erakusketa ikustera hurbildu dira astean zehar Kultur Etxera. **Iñaki Mata** Taun-Tauneko kidearen eskutik, haurrek panpinen fabrikazio prozesua edota taldearen lan ezberdinen xehetasunak ezagutzeko aukera paregabea izan dute.



**□ Romingerren ondorengoak**

Joan den larunbatean, maiatzak 8, Aranzadi Ikastolako 7. eta 8. mailako berrogeitamar neska-mutiko inguru, hamar bat irakasle eta beste dozenerdi lagunek urtero egin ohi duten mendi-bizikleta irteera egin zuten **Urkulura**. Bi apoiozko auto, hiru pintxazo, katai hauste bat, bi zauritu arin, hamabi bat despistatu eta agujeta ugari dira eguraldi onaren laguntzaz burututako irteeraren balantzea. Guztiak pozik, baina irakasleak poziago oraindik, eurak nagusitu baitziren ikasleen aurrean.



**□ Barrenkaleren itxura berria**

Aste honetan bertan amaitu dira Barrenkaleko hainbat fatxada berrizteko lanak. 20 milioi pta. inguruko aurrekontuarekin, 19 etxebizitzetako fatxadak berriztu dira eta Barrenkaleak beste kolore bat hartu duela esan daiteke. Kableak kendu eta beste zenbait lan burutu ondoren, Barrenkale estreinaldirako prest izango da. Hirigintza Batzordeak kalea oinezkoentzako utzi nahi du baina Gobernu Batzordeak du azken hitza...


**Zertan  
dibardute  
ba?**

BEA JIMENEZ-AITOR PAYROS



Astebukaeran Gasteizen jokaturako Eskalada Txapelketan Beatriz Jimenez Espainiako 2. sailkatu zen eta Aitor Payros Unibertsitate Arteko Txapelketako lehen euskalduna izan genuen.

GORETI FERNANDEZ



Antzuolar honek pasa den larunbatean Ordizian jokaturako alebin mailako Gipuzkoako txapelketako luzera jauzia p'roban irabazi zuen 4 metro eta 51 cm.ko jauziaz.

**ETXAGI**

**Jatetxea**

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**Etxearen goxotasuna bere barnean dago**

**San Miguel E. A.**

San Lorenzo, 4

☎ 76 47 90

☎ 76 01 15

**Isolatu zeure etxea  
hotz eta zaraten kontra**

**ISOVER**

## Plaentxiako matematikak

Sartu dira iru lagun Meltxorren tabernara.

- Estefania -diñotse etxeoandriari- ekarri iru bokadillo eta arda u bano aundi bana.

Kontua ordaintzerakuan, etxeoandriak 23 peseta eskatu zetsezen. Iru lagunak etziran konforme. Euren ustez, 21 edo 24 peseta izan biar zan kontua. Baiñan au izan zan Estefanian erantzuna:

- Ara, mutillak, nik kontuak egiten jitsuadaz, "uno con otro". Batakin irabazi eta bestiakin galdu, baiñan zuen kasuan be gauzia garbi dago. Begira, zuen kontua zazpiña peseta dok. Eta, orduan papera eta lapitza artuaz, diñotse:

- Ara, siete por tres 21 ditxuk, eta "dos de llevada" 23.

## Errogatibak

Markiña aldian Errogatibak eitxera zoiazan Jainkoari eurixa eskatzeko. Esandako orduan, agertu da abadia, ta ikusi zebanian iñok ez zaroiala "guardasolik", esatetse:

- Fuera! Danok etxera! Zuek ez-taukazue federik. Fedia euki bazenduen, aterkixekin etorriko ziñazien. Fede barik alperrik dira Errogatibak!

*Pedro Zelaia*



Argozkian, Tarragonako Francisco Miguel Sedo Rivasen hegazkina Lapatza baserri inguruan lurreratu eta gero. Hegazkinaren hego batean jarrita ogeri den mutikoa, ostera, Roberto Goikoetxea da. Jakin dugunez, lurreratu ondoren, eta ezer ez zitzaiola hondatu konturatu zenean, berriz ere irteten saiatu zen pilotoa, baina guardia zibilek ez zioten laga. Horrela, bada, abioia desmontatu eta kamioi batean eraman zuten, hori bai, "En todo momento custodiado por la Guardia Civil".

## BERGARAN LURRERATU BEHARRA IZAN ZUEN HEGAZKIN TXIKI BATEK

Bergaran, "La Patxa" (sic) baserriaren inguruan, lurreratu beharra izan zuen Francisco Miguel Sedo Rivas, Reus-eko (Tarragona) 25 urteko gazteak gidatutako hegazkin txikiak. Arratsaldeko 7.30ak aldera gertatu zen eta ez hegazkinak eta ez gidariak ez zuten inongo okerrik izan.

Gidariak berak azaldu zuenez, gasolina bonbak aberiaren bat izan eta Sondikako aireportuarekiko harremana eten egin zitzaion. Hori dela eta, Bergara inguruan lurreratzeko toki egokia bilatu beharra izan zuen.

1968-V-12. El Diario Vasco.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerotekatik bildutako notiziak

## KIZKUR



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## SURPE

### Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

## LARREA

### TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

## BERGARA

### Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

## Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



**Zumelaga**

**JATETXEA**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**FERNANDO AGIRRE**

"Bergara siempre leal a la Corona Real" esaldia irakur daiteke Bergarako harmarriaren inguruan. Horixe zen aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena.

FERNANDO AGIRREk jarri du erantzun zuzena eta bera dugu, beraz, aste honetako irabazlea.

Berarentzako, HERRAN ETXEAk emandako saria.

**ZORIONAK !!**

Eta besteek segi asmatzen! Animo!!

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53


**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



FERNANDO AGIRREK jaso du aste honetan HERRAN ETXEAK emandako saria.



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Aurrez ere aitatu izan ditugu, sail honetan, bergarar jatorria duten pertsonaia famatuak, hala nola Sor Juana Ines de la Cruz, Domingo Martinez de Irala eta Sanchez Toca medikua bera. Mende honetan ere izan dira Bergaran jatorria edukirik gizon eta emakume famatu eta ezagunak izatera heldu direnak, eredutzat Miguel de Unamuno bera har daitekelerik. Bergarar jatorria zuen beste bilbotar bat politikari famatu eta Euskal Gobernuko Lehendakaria izatera iritsi zen.

## Zein Lehendakarik zuen aita bergararra?



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



## 2. errejionala igoeraren bila

Bergara K.E. ko 2. errejionaleko futbol taldeak igoera promozioaren lehendabiziko partidua jokatu du Donostiako Grosekoren aurka, igandean 15.30etan Matigoxotegiko zelaian.

## Bergarak 2 Billabonak 1

Bergara K.E. ko pelota sailak 2 eta 1 irabazi zion Biilabonako taldeari Herri Arteko Txapelketaren bigarren kanporaketan. Bergararrak jubenil eta seniorretan nagusitu ziren eta infantiletan galdu egin zuten. Ostiralean itzulerako partidua jokatu dira Billabonan.

# Oilagorrak 7.000 amorrain-kume inguru errekaratu ditu Bergaran

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainen laguntzaz, urteroko amorrain errekaratzea burutu du Bergarako erreka gehienguan, guztira 2,5 gr. eta 5-7 cm. neurriko 7.000 amorrain-kume errekaratuz. Horrez gain, beste horeenbeste amorrain-kume Eibarrera bidali dira.

### Arrantza lehiaketa ekainean

Oilagorakoek aurten ezin izan dute Epelen errekatzerik egin, Beasainetik Durangora bitartean egingo den errepidearen eraginez, bertako ingurugiroak jasandako kalteen ondorioz. Hala ere, Epeleko arrain kopurua atera, eta Angiozarko errekarera eramatea



Oilagorrak iaz Angiozarren antolatutako arrantza lehiaketaren irudi bat.

lortu da.

Bestalde, Oilagorrak ekainaren 6rako herri mailako arrantza lehiaketa iragarri du San Juan errekan. Parte hartu nahi duten guztiak Oilagorran eman dezakete izena maiatzaren 25a baino lehen, 7 terdietatik 8.30etara. Parte hartzeko

beharrezkoa izango da arrantza lizentzia eta 16 urtetik beherakoek eta jubilatuek dohain izango dute izen-ematea. Gai-nontzekoek 1.000 pta. ordaindu beharko dute eta lizentzia Oilagorra Elkartearen atera ez dutenek 400 pta. ko errekaragoa izango dute.


## Futbol txapelketa Ipintzan

Bergara K. E.k ekaina eta uztailean Ipintzan jokatu den nagusientzako futbol txapelketa antolatu du. Aurten ere bi talde izango dira; A taldea 18 urtetik gorakoentzat (argazkian Amilotx, iazko txapelduna) eta B taldea beterranoentzat (30 urtetik aurrerakoak). Ekipo bakoitzeko 11 jokalariz elairatuko dira eta taldeen arabera txapelketaren sistema zehaztuko da. Interesatuak ekipoaren izena Bergara K.E. ko buzoian utz dezakete eta izena emateko epea ekainaren 20an amaituko da, egun berean, 19.30etan Ipintzan, ordezkarien bilera egingo dela.



**Mujika**  
**Jantxidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



**DEBA**  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80  
76 06 37



### *Komunioak Altos Hornosen*

**K**omunio-garaian gauden honetan neska koadrila dakargu zuri-zuri jantzita. Orain dela 29 urteko argazkia da, 1964ko maiatzaren 24koa. Altos Hornosko elizan aterata dago eta bertan agertzen diren denak auzokoak dira.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Mari Karmen Iñarra, Elisa Amasorrain, Maria Asun Loidi, Maria Jesus Irazola, Maria Angeles Belastegi, Miren Murgiondo, Mari Sol Lamarain, Benita Agirre eta Maria Isabel Muñoz.

**Atzeko ilaran:** Maria Dolores Unamuno, Miren Umerez, Maite Aranzabal, Maria Cruz Luarizaristi, Rosarito Letamendi, Maria Elgero eta Kontxi Murgoitio. Abadea, Don Joakin eta erretratuaren behekaldean ikusten den mutikoa, Julian Ugalde.

*Etepan Plazaola*

*Argazkia: Mari Sol Lamarain*

**BOLINTXO**

*Kirola egiteko  
behar den guztia*

Ibargarai 10,  
☎ 76 38 32

**LAZKANO**

**Oinetakoak**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

*Zatoia*  
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**ETXEBIZITZA**

Jacan udarako apartamentua alokatzen da. ☎ 76 43 98.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragire kalean. ☎ 76 28 52. Egurdian edo gauean.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua alokatzen da Zurraderon. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Eroski gainean 62 m kartratuko pisua salgai. ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

**Pisu haundia salgai** Urteagan. Terraza, sukaldia, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

**Pisu edo buardilla bat** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

**Garajea salgai** Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

**DENETARIK**

**BMV serie 3 kotxea salgai.** Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan **Madrilera** joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

"**Visa especial**" autoa salgai. SS-S matrikula. Prezioan adostasunera hel gaitzke. ☎ 76 62 24.

**Mendiko bizikleta (GAC)** salgai ☎ 76 47 94.

**Kanping denda salgai** (haundia). ☎ 76 26 73

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**MOBYLETTE CADY motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

**Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut.** Prezio ona. ☎ 76 21 64.

**Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat** erosiko nuke ☎ 76 50 58.

**Paseozko bizikleta (bolerero) salgai.** Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko **altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.

**Motorrean ibiltzeko kasako integrala** erosiko nuke. Merke bada hobe. ☎ 76 10 04.

Errekuperatutako eta berriztutako **altzariak salgai.** ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

**Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG)** salgai. ☎ 51 51 41.

4 metroko **ADRIA karabana salgai.** 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauzez).

**Haurren aukl bat (Silver Choss)** saltzen dut eta **kotxea (Arrue)** oparitzen dut. ☎ 76 32 74.

**SEGA Megadrivea salgai.** (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

**OPEL CORSA City, BILAK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

**LANA**

**Etxeko lanak** egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).

**AutoCAD, FP2 Informatik**an praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek **haurrak zaindu eta etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Itzulpen eta interprete lanak** egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

**Esperientziadun neska** batek haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

**Hildakoak**

*Francisco Movilla Eizagirre*  
maiatzak 8

**Jaiotakoak**

*Andoni Mujika Arza*  
maiatzak 7  
*Aitor Lazkano Agirrezabal*  
maiatzak 7

**ZUZENKETA:** Joan den astean agertutako Ainhoa Aiaituiren bigarren abizena Bermejo zen eta ez Agirre, bertan jarri genuen moduan.


**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70





UNITED COLORS  
OF BENETTON.

SPRING / SUMMER COLLECTION 1993

# ORAIN ARRASATEN